



**Bilboko  
Elizbarrutia**  
DIÓCESIS DE BILBAO

# **JESUS BERRI ON DA**

## **5. GAIA GURASOAK PARROKIAN**

**Delegación de Anuncio y Catequesis  
Fede- Zabalkunde eta Katekesirako Ordezkaritza**



## 1. Helburua

- Jesusek hitzez eta egitez helarazten duen mezua zoriontasun eta bizi betearen iragarpen dela ikusi.

## 2. Helburu bereziak

- Jesus bera, bere bizia eta mezua, askorentzat, lehen eta orain, berri on dela ezagutu.
- Ebanjelioaren arabera bizitzeak zorioneko egiten gaituela jakin.



### Idea nagusiak

- Jesus, berri on da guztiontzat, bere bizimoduak arrastoa utzi zigun eta horregatik erakarri egiten gaituela eta gure erantzunaren zain dagoela sentitzen dugu.
- Jesusek zorionerako bidea erakusten digu.
- Jesus maisu eta eredu dugu bizitzan.



### Ezinbesteko lagungarriak

- Zoriontasunak (I. eranskina)
- Abestia: Ain Karemen "Los intocables" (II. eranskina)



## Saiorako gida

### Laguntzailearentzat...


Saioa, lau unetan banatuko dugu:

- o1. unea: Agurra eta aurkezpena (5 minutu). 1. urratsa.
- o2. unea: Edukiaren garapena (35 minutu). 2-3 urratsak.
- o3. unea: Otoitza eta barneratzea (10 minutu). 4. urratsa.
- o4. unea: Familiar bizitzeko. 5. urratsa.



### Lehenengo unea. Agurra eta aurkezpena

Laguntzaileak bildutakoak agurtu eta aurreko gaia gogoratuko du. Gaur, beste urrats bat emango dugu Jesusengana hurbiltzeko bidean. "Zein sekretu gordetzen da Nazaretoko Jesusengan historian zehar milioika lagun liluratzeko? Zein izan zen mendebaldeko eta munduko beste hainbat lekutako erlijioan, kulturean, bizikidetzan eta artean hain arrasto esanguratsua utzi duen pertsona hori?



Seguruenik, inork ez du hainbesteko eraginik izan bihotzetan; inork ez bezala adierazi ditu gizakiaren kezka eta galderak; inor ez du hainbeste itxaropen piztu; inor ez bezala maitatu eta gorrotatua izan da... Zer dela-eta ez da bere izena ahaztu? Zer dela-eta, gaur egun, ideologia eta erlijioek krisi larrian daudenean, indarrean dira Bera eta bere mezua, milioika lagunen fedea sustatuz? Zer dela-eta sentitzen dugu bere erakarpen eta deia?"<sup>1</sup>



#### 1. urratsa. Talde txikietan elkarrizketan jarduteko

- Fedearen zein alderdi da zuretzat berri on eta askapen eta zein estutasun, zama, zein dago zaharkiturik edo zein da ulertezin?


*Bateratze-lana: Elkarrizketan atera dena komentatu.*



### Bigarren unea. Edukiaren garapena



2. urratsa. Saioa gidatzen ari denak azalduko du Zoriontasunen esanahia. Horretarako, laguntzailea ondorengo agiriaz baliatuko da: "ERANSKINA ERAGILE, KATEKISTA, GURASOENTZAT".



3. urratsa. Taldekideei 1. urratsa banatuko diegu eta ondorengo galderak egingo dizkiegu talde txikietan erantzun ditzaten:

- Aipatu bizi duzun unearekin, zuretzat eta gizadiarentzat irrikatzen duzunarekin bat datorren Zoriontasuna.
- Gogoratzen duzu Zoriontasunen irakaspenetik bizi izan duzun bizitzako egoerarik? Konta ezazu.

♦.....

<sup>1</sup> Parrokiako familia katekesirako 2.gidatik hartuta, 5. gaia, Jesus berri on da, 3. or. Etorri eta ikusi! gida pedagogikoa



## Hirugarren unea: Otoitza eta barneratzea

 4. urratsa. Amaitzeko, otoitz egingo dugu. Bi aukeretatik bat hartu:

a) Ain karemen "Intocable"<sup>1</sup> abestia entzun.



**Entzuteko,  
klik egin irudian**

b) Otoitz egingo dugu:<sup>1</sup>

**Egun batean, gizon bat etorri zen begietan poza,  
eskuetan askatasuna eta egintzetan etorkizuna zekarrela...**

**Egun batean, gizon bat etorri zen keinuetan itxaropena,  
mezuan xarma eta egundoko bihotza zekarrela...**

**Egun batean, gizon bat etorri zen zeinuetan maitasuna,  
musuetan ontasuna, sorbaldetan senidetasuna zekarrela...**

**Egun batean, gizon bat etorri zen egite eta esanetan berri ona,  
berri on deitzen zen mezua eta gurekin bat egiteko bizitza zekarrela...**

**Egun batean, gizon bat etorri zen Espiritua gainean zuela,  
nekean zoriona islatzen zuela, bere heriotzari zentzuna ematen ziola...  
Egun batean, Zeu etorri zinen... Zatoz orain ere, Jauna!**

## 4. unea. Familian bizitzeko



6. urratsa. Hona hemen hainbat proposamen familian egiteko:<sup>2</sup>

- Seme-alabei sarritan erakutsi diezuen maitasuna hitzez eta keinuez -fisiko eta bistakoak-: besarkatu, musu eman... Horixe da zuen oparirik onena beraientzat.
- Ez ezkutatu atsekabea, heriotza, desatsegina haurrei, baina beren ondoan egon egoera horietan. Konpainia eta laguntasunak segurtasuna ematen die une horietan.
- Ikusiz gero, zuekin batera ikus ditzatela telebistan hondamendi naturalak, hilketak, indarkeria... Eta guzti hori zergatik gertatzen den eta geuk ere beste pertsona eta herri batzuen mina arintzen lagun dezakegula azaldu.
- Familiara, adiskideengana, ingurura zoriontasuna ekar dezakeen "zerbait" egitea proposatu beraiei eta zuen buruari.
- Katekesiko egunak edo asteak etapatzat dituen bidea egin beraiekin. Gaeuz, guneko berririk onena zein izan dan pentsatu eta horren inguruan elkarrizketan jardun. Guraso eta seme-alabok batera jarri. Eskerrak eman Jesusi horiengatik eta itsatsi bideko egun edo etaparen ondoan.



♦.....

<sup>1</sup> Parrokiako familia katekesirako 2.gidatik hartuta, 5. gaia, Jesus berri on da, 16. or. Etorri eta ikusi! gida pedagogikoa

<sup>2</sup> Parrokiako familia katekesirako 2.gidatik hartuta, 5. gaia, Jesus berri on da, 17. or. Etorri eta ikusi! gida pedagogikoa

## I. Eranskina

### Zoriontasunen sena

Bi idazki esanguratsutan jasotzen da Zoriontasunen multzo edo "zerrenda":

- "Mendiko hitzaldia", Mateo 5, 1-12.
- "Lautadako hitzaldia", Lukas 6, 20-26.

#### "Mendiko hitzaldia", Mt 5, 1-12

Jendetza ikusirik, Jesus mendira igo zen. Eseri eta ikasleak hurbildu zitzaizkion. Orduan, honela hasi zitzaien irakasten:

"Zorionekoak bihotzez behartsu direnak, haiek baitute Jainkoa errege.

Zorionekoak negarrez daudenak, haiek baititu Jainkoak kontsolatuko.

Zorionekoak bihotz gozokoak, haiek baitira jabetuko Jainkoak hitzemandako lurraz.

Zorionekoak Jainkoaren nahia betetzeko gose-egarri direnak, haiek baititu Jainkoak aseko.

Zorionekoak errukitsu direnak, haiek baititu Jainkoak erruki izango.

Zorionekoak bihotz-garbiak, haiek baitute ikusiko Jainkoa.

Zorionekoak bakegileak, haiek baititu Jainkoak seme-alabatzat hartuko.

Zorionekoak Jainkoaren nahia betetzeagatik erasotuak, haiek baitute Jainkoa errege.

Zorionekoak zuek, niregatik madarikatuko zaituztetenean, erasoka eta gezurrez gaizki-esaka erabiliko zaituztetenean. Poz zaitetze eta alaitu, handia izango baita zuen saria zeruan; zuen aurreko profetak ere halaxe erabili zituzten."

Zoriontasunak banan-banan aztertuko ditugu irakaspenak geure eginez.

#### Zorionekoak bihotzez behartsu direnak, apalak...

- Umilak
- Jainkoa errege dutenak.
- Jainkoarengan uste osoa dutenak.
- Beren itxaropena batez ere Berarengan oinarrituta dutenak.

*Jakina, nekez izan daiteke norbait bihotzez behartsu, ondasun materialekin itsututa dagoenean; horregatik, arduraz jokatu behar du kontsumismoaren tentazioan ez jausteko eta bizirik irauteko behar-beharrezkoa ez duen, behartasun gorrian bizi den anai-arrebarik egon ez dadin. Jainkoarengan uste osoa jarrita bizi denak bereak ditu begirada errukitsua eta ondasunak banatzeko jarrera solidarioa.*

*Jarrera hori bizi dezaten jarraitzaileak "bat izango dira" behartsuekin eta bidegabeko egoera horretatik ateratzen lagunduko die, eta aukera honek aske egingo ditu eta bihotza pozez beteko die.*

#### Zorionekoak negarrez daudenak, jasankorrak

- Gosez eta pobrezian direnak; bizitzan negarrez dihardutenak.
- Bizitzako zailtasunei adoz aurre egiten dietenak.
- Jainkoari aurka egiten ez diotenak, unerik gogorrenetan, atsekabez beteriko uneetan ere, Harengan uste osoa izan eta bidelagun dutela sinesten dutenak.
- Gaitzari gaitzez erantzuten ez diotenak, ona baizik.



*Jainkoak zorioneko izendatzen ditu, Berak ez baititu eskutik uzten, sufritu egiten du beren sufrimenduekin, min hartzen du beren atsekabearekin. Kristau konpromisoak sufritzen, negarrez ari den, itxaropena galdu duen, justizia noiz jasoko zain den ororen ondoan kokatzen du Jesus.*

## **Zorionekoak justizia egiteko gose-egarri direnak...**

Zorionekoak Jainkoaren justizia, Jainkoaren borondatea ezagutzeko eta bizitzeko gose direnak. Bera Aitatzat aitor dezatela eta bere seme eta alabak senidetasunean bizi daitezela da Jainkoaren borondatea. Jainkoarentzat, hauxe da justizia egitea: gaizki pasatzen ari direnei beren egoera larritik ateratzen laguntzea, gosetiari jaten ematea, zuzentasuna gauzatzea, elkartasuna sustatzea.

## **Zorionekoak errukitsuak, bihozberak...**

- Errukiz jokatzeko dutenak, hau da, besteekin bat egiten dutenak sufrimenduan.
- Behartsuez errukitzen direnak eta laguntzen dituztenak, gabezia materialei nahiz afektiboari, psikologikoari edo espiritualei aurre egin diezaieten.
- Barkatzen dakitenak, gurekin ulerbera eta bihozbera den Jainkoak bezala.

Jesusek, ebanjelioan, parabolez baliatuz, irakaspen hau helarazten digu: sarmariar ona (Lk 10, 25), azken epaiketa (Mt 25, 31-46), seme xahutzailea (Lk 15, 11-32), barkatzeari uko egin zion funtzionarioa (Mt 18, 23)... Jainkoaren borondatea entzuteko eta zuzentasun eta senidetasuna gauzatzeko eta hedatzeko irrika duten gizon eta emakumeak errukior eta bihozbera dira.

## **Zorionekoak bihotz-garbiak...**

- Bihotz zintzokoak.
- Itxurakeriarik gabekoak, gardenak.
- "Oso-osoko" diren pertsonak.

Bihotz-garbi dena ez da aurreiritziez baliatzen, egiara irekitzen da, edonondik etorrita ere, eta beti besteengan dagoen alderdi positiboa ikusteko gaitasuna dute. Beren baiezkoa, benetako baiezkoa da.

## **Zorionekoak bakegileak...**

- Bakegileak, ez baketsuak bakarrik.
- Gatazken erdian, zubiak eraikitzen dituztenak.
- Indarkeriak salatzeaz gainera, gatazketan sartu eta arriskuak hartuz, bakearen sorreraren alde egiten dutenak.

Jesusek ikasleak agurtzeko zerabilen shalom, bakea, guztiekiko harmonia eta senidetasuna da, eta Jainkoarengandik datorkigun dohain nagusia.

## **Zorionekoak zuzen jokatzegatik jazarpina jasaten dutenak...**

- Munduan Jainkoaren zuzentasuna, maitasuna eta senidetasuna ezarri nahi izateagatik jazarritakoak.
- Ebanjelioaren arabera bizi nahi dutenak, hortik eratorritako zailtasun eta gatazkek onartuz.
- Jainkoaren Erreinuaren alde borrokatzen dutenak, uko egite pertsonalak, konfrontazioak, onespentik eza... onartuz.

## II. ERANSKINA

### "LOS INTOCABLES", AIN KAREM

No cuentan las mujeres ni los niños,  
no cuentan quienes vagan marginados,  
no cuenta quien es pobre o está enfermo,  
no cuenta quien está crucificado.  
No cuentan quienes no tienen trabajo,  
ni tampoco quien sufre una adicción  
o quien habla otro idioma en tierra extranjera,  
no cuenta quien es de otro color.

MAS... PARA TI  
SON QUIENES CUENTAN,  
SON QUIENES CANTAN LA GLORIA DE DIOS,  
SON TU ROSTRO, SEÑOR CRUCIFICADO,  
SON TU ROSTRO, SEÑOR RESUCITADO (2)  
ERES TÚ .

Ni los niños soldados tienen nombre,  
ni las niñas que están esclavizadas,  
no existen quienes hoy mueren de hambre,  
y se ignora a quienes sufren soledad.  
No contaron las mujeres ni los niños  
y hoy siguen sin contar los más pequeños.  
Que haga mío el dolor de mis hermanos  
y comparta, en justicia, el pan con ellos.

